


Euskal AEko BPGk %0,1eko hazkundera izan zuen hiruhilekoen artean

Lehenengo hiruhilekoko urte arteko aldakuntza %-0,6 izan da

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,1eko hazkundera izan du 2010eko lehen hiruhilekoan aurrekoaren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Bigarren hazkunde positiboa da 2008ko azken hiruhilekoan hasitako murrizketen ondoren, aurreko hiruhilekoan izandako aldakuntza positiboaren ondoren eta Espainiako ekonomiak izandakoarekin batera dator, INEren aurre-zenbatespenaren arabera.

Euskal AEko urte arteko BPGren aldakuntza %-0,6an da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, 2009ko laugarren hiruhilekoan urte arteko %2,5eko murrizketa izan zelarik. Urte arteko tasan, Espainiako ekonomia %1,3 murriztu da, aurre-zenbatespenaren arabera.



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena

Bilakaera honen oinarrian batetik zerbitzuen jokaera erlatiboki hobea dugu; bestetik, bai industrian, bai eraikuntzan, aurreko hiruhilekoaren aldean bilakaera apalagoa, baita negatiboa ere, dugu.

Enpleguan, berriz, aurreko hiruhilekoaren aldean bilakaera negatiboa dugu; %1 inguru.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

[Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapenari buruzko datu-bankua](#)